

Baietz gurean!

- Zer da? Buruntzaldeko enpresetan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoa.
- Zertarako? Helburu nagusia da Buruntzaldean ahalik eta enpresa gehienek jartzea abian euskara plana. Horretarako, Ahize-AEK hizkuntza-aholkularitzaren proposamen batean oinarrituta, helburu instrumental batez baliatuko gara. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) ematen duen ziurtagirietakoren bat lortzeko bidean jarri nahi ditugu enpresak, eta ibilbide horretan diruz lagundu. Finean, Bikain ziurtagiria erreferente hartuta, euskararen erabilera normalizatzeko bidera erakartzea enpresak.
- Norentzat? Buruntzaldeko herrietako 10 langiletik gorako enpresei zuzendutako egitasmoa da (euskara edota euskarazko sorkuntza enpresaren jarduera nagusizat duten enpresek ezingo dituzte egitasmo honek eskaintzen dituen diru-laguntzak jaso).
- Noiz? 2010-11n hasita, 2014an lau urteen inguruko balorazio orokorra egin eta emaitzen hausnarketa egingo da.



Lanbide Heziketako hiztegia

- Laneki-k, Lanbide Heziketa sustatu eta hobetzeko Elkartek, **Laneki hiztegia** aurkeztu berri du. Lanbide Heziketarako eta arlo tekniko eta profesionalerako berriaz sortu den euskarazko lehen online hiztegia da Laneki. Tresna berritzaile honen helburua LHri buruzko informazioa gizaratearen eta edozein erabiltzailearen esku jartzea da.
- Termino multzo handienak Elektrizitatea, Elektronika eta Fabrikazio mekanikoari dagozkio.
- Informazio gehiago [hemen](#)

LANEKI

MIntegia “30 +10”: praktika onak

Jarraian 30+10 mintegiak utzitako bi praktika on (IMH Elgoibar 2010/10/21):

- 1.- **Maquelsa**/konika Minolta: AEK-k 100 euskaltegitik gora ditu eta fotokopiagailuentzako euskarazko softwarea kontratatu berri du. Honen guztiaren onuren berri eman zuen Mertxe Mujika AEKren koordinatzaile nagusiak.
 - 2.- IP telefonia hizkuntza kudeaketan: IMHk, kasu honetan, IP telefonia software askeko plataforma batean du antolatuta, **Asterisk** izenekoa. Honekin, galdutako deiak murriztu dira, kostuetan aurreztu eta hizkuntza politika sakonago aplikatu ahal izan da.
- Informazio gehiago [hemen](#)

Bikain: ziurtagiri banaketa

- Azaroaren 10ean banatu dira Bikain Ziurtagiriak Donostiako Kursoal Jauregian.
- Bikain Ziurtagiri ofiziala, publikoa eta doakoa da, Eusko Jaurlaritzak luzatzen duena, eta enpresa nahiz erakunde batean euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen duena.
- Buruntzaldeko zenbait enpresak badute jada ziurtagiria, eta kopurua handitzen dugu erronka.
- 2011ko ebaluazioak egiteko deialdia martxan da. Informazio gehiago [hemen](#)

D Iru-laguntzak 2010

- Kontuan izanda aurkeztu den eskabide-kopurua, HPS-k, Lan Hitzetarako diru-kopurua handitzea erabaki du. Honela, egitasmoen bideragarritasuna bermatu ahal izango da.
- Informazio gehiago [hemen](#)



Andoain, Asilgarraga, Hemen, Lasarte-Oria, Urdieta eta Usurbilgo Udalak. Euskarako Batzordeak.

www.buruntzaldea.org